

3. GARAIA

ZAHARRA, GIZENA, TXARRA ETA
BELTZA BOTA!

Gaian sar zaitez
Testua uler ezazu
Obra osoa irakur ezazu
Irakurtzen eta idazten treba zaitez
Ahozkoa: uler eta adieraz ezazu
Idatz ezazu
Testu eta obren arteko loturak egin itzazu
Hiztegia aberats ezazu
Testu motak ezagut itzazu
Olerkiak, kantuak eta erran zaharrak

<i>Euskal Herriko lhauteri batzuk</i>	Ikasgelen deskribatzea	48. or.
Zaharra, gizona, txarra eta beltza bota! Uztaritzeko Zanpantzarren auzia	Argibide dokumentuen irakurtzen ikastea eta estrategiak argitzea Antzerkia ulertzea	49. or. 54. or.
Uztaritzeko Zanpantzarren auzia Bide- gain	Antzerkia ulertzea	
Zaharra, gizona, txarra eta beltza bota! Uztaritzeko Zanpantzarren auzia	Xerka eta harrapa Kopiaketa kronometratua Irakurketa antzeztua	53. or.
Maskarada, libetimendua eta kaskarotei buruzko elkarrizketak	Elkarrizketak ulertzea eta ekoiztea lhauteri zentzuari buruz eztabaidatzea	59. or.
	Antzerkia idaztea	
Zaharra, gizona, txarra eta beltza bota! testuaren hiztegia	Argibide testua irakurri aitzin hiztegia ikastea	62. or.
	Antzerkiaren ezaugarriak ezagutzea	63. or.
Ikaste buruzko olerkiak, kantuak eta erran zaharrak		64. or.



Gaian sar zaitez

Ihauterietan jendea mozorroturik ateratzen da karrikara. Herri batzuetan pertsonaia berezi zenbait agertzen dira, beste batzuk probintzia bat baino gehiagotan. Ihauteri batzuk ezagutuko dituzu. Izendatuak diren herriak mapan koka itzazu eta ondotik herri horietako ihauteriei so egiezu, jantziak, dantzak edo ekintzak deskribatzeko.

Lantz



Altsasu



Abaltzisketa



Lesaka



Zaharra, gizona, txarra eta beltza bota!

Ihauterien jatorria

Ihauterien jatorria ez da argiki finkatua, baina segur aspaldiko erritua dela. Antzinatean jadaneko neguaren bukaera ospatzen zen Europan.

Jendarteko hierarkia eta ordena itzulipurdikatuak ziren orduan, eta zernahi egin zitekeen.

Erdi Aroan Eliza giristinoa Europa osoan hedatu zen eta ihauteri garizuma aitzineko besta bilakatu zen.

Garizuma denboran, 40 egunez ez zen ez haragirik, ez azukrerik ezta gizenik ere jan behar eta beraz ihauteria jaki horiez gozatzeko mementoa zen.

Halere, Elizak ez zuen ihauteria begi onez ikusten, kasik dena haizu baitzen eta maiz debekatu nahi izan zuen.

Gaur egun garizumari erreferentzia egiten zaio oraino batzuetan, astearte gizen aipatuz, adibidez, baina gehienetan mozorrotzeko eta libertitzeko garaia baizik ez da, garizuma ez baita lehen bezainbat egiten.

Halere, eskualde zenbaitetan aspaldiko usaia zenbait begiratu dira, hala nola Euskal Herrian.

Euskal Herriko ihauteriak

Euskal Herrian usaia anitz badira ihauteri garaian, lekuen arabera. Toki anitzetan jendea eskean ibiltzen da, etxez etxe, bereziki baserrialdean.

Eske horietan jatekoa eta edatekoa biltzen da eskuarki, gero apairu handi baten egiteko gisan. Herri erdiguneetan, desfileak eta ibilaldiak egiten dira.

Bi motako pertsonaiak ageri dira usu: musikaz lagundurik eta dantzari ari direnak, apain jantzirik. Adibidez kaskarotak Lapurdin, Txantxoak Gipuzkoan, atorrak Bizkaian... Eta beste talde bat maskaturik edo pilda txarrez jantzirik: Mozorroak Nafarroan, Zirtzilak Lapurdin, Buhameak Zuberoan...

Horiek usu zernahi eginka ibiltzen dira, eta jendearen, bereziki haurren, ikaratzen.

Pentsa daiteke bi pertsonaia mota horiek ongia eta gaitza, udaberria eta negua irudikatzen dituztela.



Hartza

Euskal Herriko bazter guzietan agertzen da hartza ihauterietan, adibidez Kuartangon, Saran, Iturenen, Eibarren, Markinan eta Zuberoako maskaradan.

Hartza neguan lo egoten baita, haren iratzartzeak primadera heldu dela seinalatzen du, eta naturaren berpiztearen ikur gisa ikus daiteke.



Lurraren iratzarraraztea

Neguan lurra luzaz lo bezala egoten da. Laborantza gutiago egiten da, hotz baita eta egunak labur. Ihauteria, negu bukaeran izanki, lurraren iratzarrarazteko parada da ere. Horregatik, ihauteri denboran neguaren eta izpiritu gaiztoen kasatzeko pertsonaiak ere badira.

Altsasuko momotxorroek, adibidez, golde bat erabiltzen dute herrian gaindi, lurra emankor izan dadin.

Olaztiko zamarroek ongarrria eta hautsa aurtikitzen dute gurdi batetik, hori ere lurraren joritzeko.

Pertsonaia anitzek sardeak edo erratzak ere badituzte, izpiritu gaiztoen uxatzeko, eta lurra joz haren iratzarrarazteko.

Joaldunak

Dilin, dalan, dilin, dalan,
Joaldunak lan eta lan
haizatzen negu beltzeko gaitz eta izpiritu tzar.

Tatan, tatan, tatan, tatan,
heldu dira tarrapatan
bazterren inarrosteko,
izadia dadin atzar



Gaitz guzien erretzea!

Naturaren loaldia bukatzearekin betan, neguko iluntasuna ere kasatzen da, eta harekin herrian gertatu diren gaitz guziak. Toki anitzetan, gaitza pertsonifikatzen da, erran nahi baita gertatzen diren kalte guziak pertsona itxurako panpina bati leporatzen zaizkiola. Hura izanen da urteko zorigaitz guzien hobendun.



Herritarrek auzia egiten diote pertsonaia horri, eta barneko erresumin guziak ateratzeko parada da herritarrendako. Lekuen arabera pertsonaiaren izena eta itxura ez da arras bera: Araban Markitos izeneko gizon itxurako pertsonaia, Lapurdin Zarpantzar, Lantzen Miel Otxin, etab.



“Zalduondon, arratsaldean, konpartsa koloretsu batzuek Markitos hartu eta epaituko dugun lekura eramaten dugu. Txistu, akordeoi eta atabalaren laguntzaz behin eta berriz kantatzen dugu: "que venimos de la función, que venimos del carnaval, que venimos de la función, de la función del carnaval..." Gure herriko ihauteriaren pertsonaiari, Markitosi, auzia egiten diogu, erretzen dugu eta suaren inguruan dantzatzen.”

Ihauteriak munduan gaindi

Munduko bazter guzietan ospatzen dira ihauteriak.

Europako toki zenbaitetan, Euskal Herrikoen eite duten pertsonaiak eta ospakizunak aurkitzen dira ihauteri garaian.

Hartza Pirinio guzietako ospakizunetan ikus daiteke, Biarnon, Andorran, Ekialdeko Pirinioetan...

Baina urrunagoko ihauterietan ere agertzen da hartzaren figura. Bulgarian, adibidez.



Bulgarian, neguaren bukaeran, aste batez, Kukeriek izpiritu gaiztoak haizatzen dituzte. Ilunabarrean, ibiltzen den jendea makilez eta oihuz kasatzen dute. Martxoaren lehenean Kukeri talde guzien besta da.



Mamutoneak Sardinian

Bulgarian beti, kotilungorrien eite duten pertsonaiak ere ibiltzen dira karriketan.

Sardinian joaldunak eta mamotxorroak oroitarazten dituzten pertsonaiak badira, ageri da kultura eta jendea aspalditik ibili dela European gaindi!

Veneziako ihauteriak oso ezagunak dira. Erdi aroan ospatzen zelarik, beste tokietan bezala usaien itzulipurdikatzea eta zernahiren egitea aizu zen, eta horregatik Napoleon Bonapartek debekatu zituen

XVIII. mendearen bukaeran. 20. mendearen bukaeran berriz abiatu ziren, eta gaur egun turistendako ikuskizun erraldoia bilakatu dira, eta jatorrizko zentzua doi bat galdua dute...



Ameriketako ere fama handiko ihauteriak badira.

New Orleanseko ihauteriak, adibidez.

Ameriketako Estatu Batuetako hiri horretara Frantsesek zuten astearte gizen ekarri, XVIII. mendean.

Ondotik, esklabo afrikarren eragin handia izan da eta gaur egun, karro desfile handi eta koloretsuak izaten dira hirian barna, musikaz eta dantzaz lagundurik.



Rio de Janeiro

Rio de Janeiroko ihauteriak mundu guzian ezagunak dira. Milioika jende biltzen da hartan, desfilearen ikusteko. Portugesek zuten lehen aldiz ihauteria Brasilera ekarri,

XVII. mendean. XVIII. Mendearen bigarren partean, Brasilek independentzia kausitu eta, Portugaleko usaietarik urundu nahi izan zuten. Parisko ihauterietako desfilean inspiraturik, eta esklabo afrikarren ondokoek ekarpenarekin, orain ezagutzen ditugun ihauteriak estreinatu zituzten, samba musikaz eta dantzaz alaiturik.



Testua uler ezazu

- 1 Taldeka, inauteri azaltzen duen dokumentuaren zati bat irakur ezazue eta lagunei egiteko galderak presta.
Galderen idazteko ez ahantz:
- galderazko hitz desberdinen erabiltzea (Atxikarauan so egin dezakezue).
- argibide desberdinen xerkaraztea. Argibidea testuan zuzenki idatzia izaten ahal da edo testu zatien arteko loturak eginez aurki daiteke, edo testuaren eta irudiaren artekoak...
Zuen galderak xingoletan idatz itzazue eta kutxa batean bil, nahas-mahas.
- 2 Galderak bildu eta, aldizka, irakasleak edo ikasle batek galdera bat irakurriko du. Erantzuna ahal bezain fite atzeman beharko duzue eta irakurketa estrategiak azaldu: nola atzeman duzue erantzuna?
- 3 Trebatu ondoren, galdera batzuei erantzun beharko diezu, idatziz eta bakarka. Erantzun bakoitza non irakurri duzun azaldu beharko duzu, eta nola atzeman duzun.
 - a) Azal ezazu zer erran nahi duen “Gaitza pertsonifikatzen da.”
 - b) Janzteko zer erabiltzen ote da ihauteri ainitzetan?
 - c) Zer da zamarroen organ?
 - d) XVII.-XVIII. mendeetan, zergatik hainbeste ihauteri kultur trukaketa izan ote ziren?



Irakurtzen eta idazten treba zaitez

- 1 Eskuliburua hets ezazu. Irakasleak hitz multzo batzuk irakurriko ditu. Ahal bezain zalu aurkitu beharko dituzu, eta nola atzeman duzun azaldu. Prest?
- 2 Orain, ber lana egingen duzue, binaka.
- 3 Kopiatzen trebatzeko.
Dokumentuaren zati bat hauta ezazu eta behin baino gehiagotan kopia ezazu (ez egun berean). Aldi oroz, behar duzun denbora neur ezazu eta zure aitzinamenduak ikus.

2023ko Uztaritzeko San Pantzaren auzia Hiribehere

... Orduan sartzen da antzezle bat, aterpe anti-atomikoak eraikitzen dituen enpresa baten nagusia bere enpresaren publizitatea egiteko.

Nagusia: Aterpe anti-atomikoak! Aterpe anti-atomikoak! Zatozte denak, beldurrik gabe hurbildu! Enfin...beldur pixka batekin hala ere, jendearen beldurrak gaituelako aberasten! Zatozte zatozte! Badugu denetarik, aterpe ttipienetik handienara, nahi den bezalako! Apokalipsia izan dadin zoriontsua etorri guregana!!!!

Zanpantzar: Baina nor diagu hori orain? Ez da posible! Parti hadi hortik!!!

Bruno: Zanpantzar, aterpe anti-atomikoak? Baina zer da hori?

Nagusia: Bruno Carriole jauna, dena esplikatzen dauzut, zaude lasai. Baina lehen galdera ez da zer da hori, baizik eta zertarako hori?

Bruno: Zertarako hori?

Nagusia: Ooooooh! Galdera bikaina Bruno! Gerla nuklearra heldu zaigu Bruno ! Heldu da egun handia ! Le grand feu d'artifice ! Eztanda erraldoia duen jokoa ! Eta jostetako puska horren jabeak badira andana bat, Pakistan, Errusia, Korea, India, Israel, Txina... Jokalari franko dira bai, eta denak net eroak ! Beraz jokoa hasiko delarik beharko da prest izan.

Zanpantzar: Eta Frantsesak, Amerikanoak eta Ingelesak zer dira? Ez dira eroak horiek ere ? Horiek ere badute bonba! Redios !!!

Nagusia: Bai baina joko guzietan bezala badira gaiztoak eta gisakoak. Eta erran dituzunak gisakoak dira. Bref, jokoa bukatzean dena suntsituko da, mundu guzia. Adibidez, Uztaritze fini, ttutt, ez da deus geldituko. Eta orduan, zer da hurrengo galdera Bruno ? Oroitzen zira ?

Antolatzailea: Bai egun on, deitzen zaitut Lapurtarren Biltzarretik, bai, jakin nahi nuke ea interesatuak zinaizketen karro ibilaldian parte hartzeko...bai...karro baten egiteko bai....

Bruno: Hurrengo galdera? Euh...zaude...merde...ah bai, aterpe anti-atomikoak? Zer da hori?

Nagusia: Bikain Bruno, segitzen duzu. Lur azpian aski barna eraikitzen dituztan etxeak dira. Jokoa bukatzean, holakoak dituztenek bizirik iraunen dute, eta beste guziendako GAME OVER! Eta badut denetarik. Ebe Zanpantzar, zuk pobrea iduri baituzu, zuretzat badut hori (plano bat zabaltzen du) le modèle mini, 9 m-, ohe bat eta komun bat, 10000 eurotan, zure baratze azpian egiten ahal dutana. Zanpantzar : 9m-, ohe bat, komun bat, Euskaldunek badakigu zer den hori, presondegiko ziega!! Non merci! Fleury-n bezala bizi-tzeko? Ez eta pentsatu ere.

Nagusia: Alta modelo horrek badu arrakasta. Putini esker ene komandek ez dute egin bider bi, ez dute egin bider hiru, egin dute bider laaaaau, izokin eta bakalau! Bruno, zuk sos gehiago baituzu, zuretzat badut beste modelo bat, bunker format familial, bistan da karioago, baina 100 m² ditu, 3 ganbera, sukalde ekipatua, muskulazio gela, saloia ere telebistarekin...

Bruno: Bai baina erran duzu Uztaritze fini, ttutt, foutue, ez da aski handia, nahi dut herri guzia salbatu nik!!

Nagusia : Ah baina badut behar duzuna! Ez herri guziarendako baina herritarren elitearendako bai. Badut le format collectif version luxe ! (beste plano bat zabaltzen du) 56Om, 3 estaiakoa, ganbera aunitz, jangela handi bat, pizina, ping-pong gela, zinema bat, musika gela bat piano batekin, bai zeren eta gaita bunker batean... gaixo belarriak. Hasteko bikaina da, le haut de gamme.

Bruno hasten da isipu batez zola miatzen (arkeologo bat bezala).

Zanpantzar: Baina isil hadi !! (planoak urratzen ditu) Badiagu plein le ipurdi hire bunkerretaz! Ez hadi alu horren zepoan eror Bruno. Horrek aberastu nahi dik, besterik ez, gure beldurrarekin gainera. Eta Uztaritze bunker batean ezarri? Lur azpian? Ez baitu bunker baten itxura jadanik herri honek? Aspaldian erdi lo duk gure herri maitea, herritarrek ez diagu elkar ikusten ere. Begira Hiribehere plazako ostatuak... ze giroa! Lau biera eta arratseko 10etan denak ohera, uauau c'est génial! Gero bai, igande goizetan bestondorik ez, hori da abantaila. Uztaritze bunkerrizatu? Baina jadanik hala duk gaizoa. Satorrak bezala gituk denak, nehor ikusi gabe. Nahi duk pizza bat? Baduk maxina 24/24, nahi dituk nemak eta samoussak? Baduk maxina 24/24, nahi duk ogia? Baduk maxina 24/24, zer da ondoko etapa? Gonzalezen taloak 24/24 ?

Nagusia: Baina biziki ideia ona da hori! Talo maxina ene bunkerretan, pas con.

Zanpantzar: Bakea emak hire eraikinekin hik, apokalipsia heldu bada jinen duk eta fini. Agintariekin bezperan abisatzen ahal bagaituzte aldiz azken besta eder baten egiteko.... baina....zer ari hiz Bruno?

Bruno: Bilatzen dut ea baden brontzezko esku bat. Ikusi duzu Irulegin? Lehen bazuten arnoa, orain badute eskua. Behar ginuke atzeman gurea, herria erakargarri litaiketa komertziorendako on litaiketa. Nola da? Sorionesku, Sorioneska?

Zanpantzar: Brontzezko esku bat? Zer uste duk idatzia izanen dela, biper ta tomate?

Hor sartzen dira kaskarot bikote bat, martxa dantzatzuz, bibolinarekin. Gure Irratiko kazetari batekin. Plazaren erdira arribatu eta hasten da elkarriketa.

Gure Irratia: Gau on entzuleak, beraz bai Arantxa, zuzenean eta eskusibaz ari gatzakizkie Uztaritzeko Purgu plazatik, eta uste dut gaurko gertakaria historikoa dela erraiten ahal dugula, lehen aldikoz neskak onartuak baitira kaskarotetan. Eta preseski ondoan dut dantzari bikote bat, orduan nola pasatu dira aurtengo kaskarot...pixka bat bereziak edo usaiaz kanpokoak erran genezake?

Neska: Ebe ontsa. Giro goxoan dantzatu dugu, etxeetan ere harrera ona ukan dugu eta ez dakit...biziki kontent gira!

Gure Irratia: Neskak kontent orduan ez da harritzekoa, uste dut aspaldiko aldarrikapena zela hein...baina zer diote mutikoek?

Mutikoa: Bo...hastapenean bitxi egiten du. Baina gero...ebe...usatzen gira. Arnoa edanez bezala giro goxo bat sortzen da eta...voila quoi.
Bi dantzariak eta kazetaria aperitifan hasten dira mahai ttipi baten inguruan

Zanpantzar: To! Hori bai berri ona! Ongi etorri Uztaritzeko andere ederrak gure herriko kaskarotetara! Zuetaz biziki harro niz!!

Bruno: Ixo Zanpantzar, ez zira ontsa ala? Kasumazu gai hori aipatzean. Delikatua baituzu egungo suieta, hasi aitzin egin ezazu zonbait gogoeta.

Zanpantzar: Neska dantzari agertzea ez baita josteta? Ez arrangura Bruno, zer nahi duk gertatzea? Badakiat bai gai minberatsua dugula hori gure herri maitean. Gauza frankotan bezala badituk aldekoak eta kontrakoak.

Bruno: Kontrakoek erraiten dute 400 urte hauetan hori dela tradizioa...

Zanpantzar: Eta zer inporta du? Neskak onartzea ez da tradizioaren traizioa. Tradizioak eta ohiturak gauza bizidunak dira. Begira aurrekua, lehen mutikoek dantzatzen zuten bakarrik eta orain neskek ere bai. Eta zer pasatu da? Deus berezirik. Uztariztar maiteak, ulertzen dut aldaketak beldurra eta nahasmena sortzea, baina ez arrangura, bizirik iraunen dute Uztaritzeko Kaskarotek, atzokoaz oroitzuz baina biharkoa begiratzuz!!!

Ali Khamenei (Iran-go buruzagia) sartzen da bere polizia edo militarrekin.

Ali: Salam Oualekoum! Zer pasatzen dela Uztaritzen. Neskak kaskarotetan? Nola da hori posible? Nardinamouk!! Allah da handi eta Mahomet da haren profeta! Hori ez dut onartzen! Hori da Haram!!!!

Bruno: Baina nor zira zu?

Ali: Ni naiz Ali Khamenei. Iranen ni naiz buruzagi, ni naiz nagusi. Biziki kexu naiz. Entzun ditut zuen emaztekiak, alfulil alharu eta tamatin kantatzen....

Bruno: Alafil alaful eta tantapin? Zer da hori?

Ali: Euskaraz hori da biper eta tomate. Neskei debekatua zaie kantatzea. Bertzenaz 100 azote ukaldi!! Oualalaradim, guk badakigu emaztekien atxikitzen. Gure konstituzioan hori idatzia da : emazte baten biziak ez du gizon batenaren erdia balio. Ez dira etxetik ateratzen guri permisionea galdegin gabe. Gidatzea libro dute baina oihala plantan ezartze-

kotan. Eta ikasketak...denik ere sukaldaritza eskola baina medikuntza eta ingeniari-ritza utzi guri!!!

Gure Irratia: Barkatu Khamenei jauna, kazetaria niz, banituzke galdera batzuk...

Ali: Egia, kazetariak ere libre hemen...Mohamed, Isham, lanera!!!!

Ali-ren poliziek kazetaria arrastatzen dute eta azote ukaldiak ematen.

Zanpantzar : Baina geldi !! Aska ezauze kazeteri hori!! Nola duk izen ttipia hik? Ali ala alu? Hemen libreki bizi gituk. Adierazpen askatasunaren aldekoak gituk. Eta errak, emazteak pertsonak dituk guretako, gizonen parekoak ! Ez dituk haragi puska bat ez eta aziendak ere!!! Nardinamouk!!!!

Ali: Allah gure jainkoak bi partetan egin gaitu, gizonak eta emeak. Hori behar da errespetatu. Hori da tradizioa. Badu 400 mende hola dela.

Zanpantzar: Eta gauzak aldatzeko tenorea jina da ! Mundu guzian entzun da Irango gazeriaren oihua. Guk ere ez dugu Masha Amini-ren heriotza onartzen. Lagunak, gauzak alda daitezen, hartu denek aitzur pare bat, egin dezagun protesta!!!

Oholtzan gelditzen diren antzezle guziak Ali-ren aitzinean lerrokatzen dira. Aizturrez bakoitzak bere ile zati bat pikatzen du.

Ali: Al'ahmaq Alkabir !! Kadhaab !! Alkalb alqadhir!!! (gros connard, menteur, sale chien..) Hori ez da hola pasatuko!! Ikusiko duzue! Irango justizia aplikatuko dugu !!! Mohamed, Isham, badakizue zer egin!!!

Musika bat entzuten da, ez dakit zein, poliziak denak zanpatzen ditu, Aliren aitzinean ezartzen dituzte belauniko.

Ali: Beraz hola protesta bat nahi izan duzue egin. Ontsa. Biziki ontsa. Orain eni erantzutea ez? Ebe bai, galdera bat, erantzun bat. Logika da. Orduan hara ene erantzuna eta Allah hor dut ene lekuko, denak hiltzera kondenatzen zaituztet. Su handi bat eginen dugu!!!

Gaspard: Ep ep ep!! Barkatu Ali, hori ez da posible, ez da egur aski, gabezia edo penuria bat asmatu dugu, enfin denak ezin dira erre. Badut alcool à 90° bestenaz

Ali: Ez ez ez... alkoola da haram!! Zanpantzar erreko dugu bakarrik, eta besteak preso. Mohamed, Isham eraman Zanpantzar erretzeko lekura, Yallah!! Zanpantzar eramaten dute.

Ali: Zanpantzar, zure ikusteko manerak eta pentsamoldeak inposatu nahi izan dituzu.

Horregatik hiltzera kondenatzen zaitut!! Azken hatsa hartu aitzin zerbait erran nahi baduzu, orain da mementoa.

Zanpantzar : bertsutan
Besarkada bat Teheran edo
Kaboulgo emakumea
Eta txalo bat ez baita errex
gisa hortan oldartzea
Nik entzuna dut zuen partetik
aske izaiteko eskea
Ez atzokoa ez biharkoa
ez baitira ber bidea
Mundua aldatzen ari da bainan
gu aldatuko girea?



Obra osoa irakur ezazu

2023ko Uztaritzeko San Pantzaren auzia irakur ezazu.

- 1 Aipatuak diren gaiak zerrenda itzazu.
- 2 Auziaren zati batzuk irakurtzen treba zaitezte. [Irakurketa antzetzua](#)



Idatz ezazu


Zanpantzarren auzia idatz ezazue.

- 1 Urtean zehar eskolan, herrian edota munduan gertatu diren gaitzak bil itzazue (kalapitak, ingurumena, eritasunak, istripuak, pobrezia, ... etab.).
- 2 Taldeka gertakari gaitza bati buruz antzerkitxo bat idatz ezazue. San Pantzar eta lekukoak pertsonaiak izan daitezke.

Taldeka, behin baino gehiagotan idatzi duzuen antzerkitxoa irakurtzen treba zaitezte. Prest zaretelarik ikastalde aitzinean irakur ezazu.



Ahozkoa: uler eta adieraz ezazu



- 1 Peioren eta Amaiaren elkarrizketa entzun ezazu. Zer xede ote du elkarrizketatzaileak?
- 2 Zer ikasi ote duzu libertimenduei buruz? Ulertu duzuen binaka elkarri kontatuko diozue.
Elkarrizketa behin baino gehiagotan entzuten duzu, eta aldi oroz libertimenduari ikasten duzuna osatuko.
- 3 Beste bi elkarrizketa entzuten dituzu,& ... rena, maskaradari buruz, eta eta kaskarotei buruz.
 - a) Zer xede ote du elkarrizketatzaileak?
 - b) Zer ikasten duzu elkarrizketa bakoitzaren bidez? Elkarri konda diezaiekezue.



Bidarrai - 2022ko Baigurako libertimendua

- 4 Elkarrizketetako galderak zerrenda itzazu. Zer galdera mota dira? Galdera irekiak?
Galdera hetsiak? Elkarrizketatzaileak zer galderazko hitz erabiltzen ote ditu? Zerrenda itzazu. Laguntzeko, Atxikarauan begira dezakezu.
- 5 Zerrendatu dituzuen galderak baliatuz heldu bat elkarrizketatuko duzu zure herriko ihauteriari buruz.

«Ihauteriak parte hartzeko dira, ez adi egoteko» Zer diozu?
- 6 Lagunekin eztabaidatu aitzin, zure iritzia idatz ezazu irakurle liburuxkan.



2022ko Donapaleko libertimendua



2022ko Hazparneko libertimendua



Hiztegia aberats ezazu

Ihauteri batzu (gaian sar zaitez)

Mozorrotu

Buruan: kapelu - tuturru - saski

Aurpegian: aurpegiko oihal - azeri larru - maska

Soinean: jantzi xuri - jantzi beltz - atorra - kota - xingola - gerriko - zamari - lastozko zaku - ardi larru

Oinetan: espartin - bota - abarka

Eskuan: makila - soka - entseina - isopu - puxika - sarde

Soinua egiteko: xilintxa - joare

Salatu

Zaharra, gizona, txarra eta beltza bota!

Erritua: Jendartean egiten den ekimen kodifikatua, usaia zahar arautua

Antzinaroa: Historiaurretik Erdi Arora doan garaia

Garizuma: Giristinoendako Pazko baino leheneko 40 egunak

Eske:

Eskuarki:

Apairu:

Pilda:

Golde:

Ongarri:

Sarde:

Kasatzeko:

Gaitz:

Hobendun:

Auzia:

Erresumin:



Testu motak ezagut itzazu

Solasaldia (elkarrizketa informala) eta elkarrizketa formal (interview bezala)

Diskurtsoaren testuingurua

Hartzaileari/ei interes eta ulermen mailara egokitu da
Azalpenaren ezaugarriak eta helburua bete ditu.
Lehen begi kolpetik, azalpen testu bat dela ohartzen gara:
- formaren aldetik eta,
- edukiaren aldetik (azalpen objektiboa da)

Testualizazioa (testugintza eta diskurtsoaren egitura)

Azalpen egitura kontuan hartu du:
Izenburua
Sarrera
Deskribapena (D), azalpena (A), kontaketa (K)
Argazkiak (A) Marrazki/Eskemak zientifikoa (M)- Leienda (L)
Orrialdearen antolaketa (Azpi izenburuak izan daitezke)

Testualizazioa (oinarrizko juntagailuak - kohesioa)

3. pertsonaia erabiltzen du (ekoizlerik eta hartzailerik ez dira agertzen)
Baliabide anaforikoak erabili ditu (sinonimoak, izenordainak...)
Edo "Animaliari erreferentzia egiterakoan, animaliaren izena erabiltzen du Beharrezkoa denean, eta isildu egiten du beharrezkoa ez denean".
Espazioan kokatzeko antolatzaileak (eskuinean, gorago ..)
Kausa eta ondorio adierazleak
Azalpenak eta adibideak

Hizkuntza (zuzentasuna & hiztegia)

1. Indikatibozko orainaldia erabiltzen du, aspektu burutua eta burutu gabea
2. Adjektibo, adberbio eta aditz zehatzak
3. Ortografia & puntuazioa Eta sintaxia ? Edo kentzen ahal da? 3.puntua?

Hizkuntzaz kanpoko baliabideak (hizketarako estrategiak)

1. Irudiak: zenbat, neurriak, kokapena
2. Tipografia
3. Dokumentuaren antolaketa

Olerkiak eta kantuak

Agur etxeko andrea

Agur etxeko andrea,
Begia duzu xarmanta,
Zureganik nahi ginuzke,
Xingarra eta lukinka.

Heldu gira urrundik,
Gaua bidean emanik,
Gaua bidean emanik eta,
lhauteriak entzunik.

Landan eder ke(r)eta,
Baxe Nabarren Heleta,
Zerbait merexi ginuke,
Handik hunat jin eta.

Goazen, goazen hemendik,
Hemen ez dago xingarrik,
Etxe huntako gazi-kutxan,
Saguak umeak egin-tik.



Bezkoitzeko KASKAROTAK 2019

Santa Ageda

Alkate jauna, legean gatoz
Baimen eskean atera,
Kanta zaharrak galdu ez ditezen
Lehengo ohitura piztera.

Guraso zaharren legean pozik
goaz danok kantatzera.
Santa Agedak ekarri gaitu
Berorren etxe aurrera.

Mendi tontorrak elurrez zuri,
Atari aldean laiotza.
Etxe huntako nagusi jaunak
Urrezkoa du bihotza.

Santa Agedak kendu digu gaur
eskean hasteko lotsa,
Dirurik ez bada, berdin zaigu
Gizendutako bildotsa.

Zelai erdian loreak argi,
larros, krabelin 'ta lili.
Etxe huntako etxeko andreak
Ama Birjina dirudi.

Etxe huntako urdaiazpiko
Asko, krakotik zintzilik,
'ta lukainak gorriak ugari
Poltsa betetzeko guri.



Inauteria inau

Udaberri aldera orain baigabiltza
Kantuz alegeraki asmatu-rik hitza
Poza senditzen dugu ta dezagun goza
Seinale hoberena atzarri da hartza.

Errepika:

Ihau ihau ihauteria
Ihau-teria!
Ihau ihau ihauteria
Ihau-teria!

Maiak beren jauntzitan graziaz beterik
Jainkosa aintzindari xuriz beztiturik
Abereak inguru dituzte bildurik
Molde onean dira dantzari loturik.

(Errepika)

Mozorro bereziez gordeak ikusten
Zirtzilen arrabotsek gaituzte airosten
Lehia bat baledi gaurkoan egiten
Itsusia zoin den dugunez jakiten.

(Errepika)

Zanpantzar gaizo hori dabil hemen gaindi
Sudurra gorri eta tripa dauka handi
Denak beretzat nahi nihun ezin geldi
Gurmant zar hori hobe kondena baledi.

(Errepika)

Hitzak : Jondoni Bixintoko CM-koak Beñat SOULEren
laguntzarekin Hazi Bizi



Ihauteriak

Hunkitu dugu negu miñia,
Aintzina doa otsaila.
Igan gaitezen selaurura
Traputzar jauntziren bila.

Errepika:

Trapu gorri eta hori
Trapu xuri ta zehargi
Ihauteriak ditugu
Denak gaitezen maskatu

Ni naiz otso beltz, mutur zorrotz,
Ni hartz lodi bat buztan motz.
Ni naiz sorgin panpiriatua,
Ni zimino espantua.

Herriko plazan agertu da,
Pantzar itsusi ohoina.
Erre behar da hobenduna,
Jo musika hasi dantza.

Graxi eta Pantxika Solorzano
Kukuka

Xorrotxak eta hou Pitxu hou!

Azken bertseta orai
Jende onak züen
Ikusi zütüegû
Saldo handian heben,
Nota amiatürik
Guri so egiten,
Dener berriz artino
Deizüegü erraiten!

Hou Pitxu hau!
Haigü hunat,
Badiat lan eder bat
Hiretako!

Hou Pitxu hou!
Lagün hon bat behar diat
Jaunaren ezpataren zorrotzeko!



Amaia Zubiria